

Materialak kontuan izanda, gehien erabiliko dugun materiala metala izango da; izan ere, giltzak metalezkoak dira. Gainera, LED argi asko beharko ditugu giltzetan txertatzeko. Hau guztia egiteko, fabrika bat beharko genuke eta bertan, moldeak eta hainbat makina lana erraztuko digutenak. Sortutako giltza guztiak enpresara garraiatzeko eta beharrezko material guztiak fabrikara eramateko, kamioi txiki bat erabiltzea nahikoa litzateke, ez ditugulako gauza handiak garraiatuko. Gure lankide taldea 5 pertsonak osatuko lukete, gehienbat garraioaz arduratzeko. Nagusiki makinek egingo dute lan gure enpresak, horregaitik behar dugu jende gutxi lanean. Makinen lana izango da giltzak egitea.